2001
2022

KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2022ko apirila - 226 zkia.

aek
22.korrika
HITZEKIN
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

DELIRIUM TREMENS

Berriro taula gainera

ELKARTASUN BIDAIA ZORAGARRIA • GHIZLAN YAZID-EKIN HIZKETAN
MATEMATIKA MANIPULATIBOA • MALUTARIK ONENAK, MUTRIKUKUAK (II)
KORRIKA 22 MUTRIKUN

camping
GALDONA
943 60 35 09

Jatetxea
eta erretegia

Paraje eta giro
ezin hobean

eguneko
menua

GALDONAMENDI

ESTETIKA
ONKOLOGIKOA
GEHIEN BEHAR DUZUNEAN
ZAINTZEN ZAITUGU

apain

DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Unai Belaustegi Bedialauneta

4.200 METRO

Mendi tontorrera iristen ari ginen. Zeropetik dozena bat gradu. Hiru lagun lotuta, eta beste hiru atzetik. Eguzkia, gure azpitik irteten. Zeru polit ugari ikusi ditut munduan. Hura, horietako bat: Mont Blanc mendiaren tontorrean. Zoragarria.

Ez naiz balentria handiegiak egindakoa. Egin ditudanak, kirol pixka bat eginda lortu daitezkeenak dira. Kirolak zoriontsu izaten laguntzen dit. Zidan.

Aurrekoan Korrikan parte hartu nuen. Politikariak Covidaren gripalizazioaz hizketan ari ziren bitartean, nik, testiguari heldu nion. Politikariak musukoak kentzeko erabakiak hartzen ari ziren bitartean, Korrikako kotxe-eskobak nola aurreratzen ninduen ikusi nuen. Laskibarko aldapan gora, Korrikan, azkena geratu nintzen. Gero, herrira sartu zenean bidezidorra hartu eta berriro Korrikarekin bat egiten nuen. Kutxa aurretik Alkoleako tunelera. Kilometro bat. 1.000 metro. Tunelera sartzen ari nintzela, kotxe-eskobak berriro aurreratu ninduen. Kitto.

Lau hilabete pasa dira lau egunetan 4.000 metrotik gorako bi tontor altxatu genuenetik. Hiru hilabete eta erdia nindoan kirolik egin gabe. Gabonetatik. Abenduaren 19an gaixotu nintzen. Covida. Positibo. 10 egun pasa nituen etxean. Ez nuen sukarrik eduki. Buruko mina bai. Usaimena eta dastamena galdu arren, berehala berreskuratu nituen. Berrogeialdia amaitu bezain pronto, itsasora sartu nintzen, igerira. Ezin. Gorputza nekatuta. Burua, minduta: ehundaka jostorratz buru barruan bueltaka edukiko banitu bezala.

Burukomina baretu zitzaidanean, berriro saiatzea pentsatu nuen. Arnora. Tipi-tapa, tipi-tapa. Korrikan bezala. Ezin. Juxtuan iritsi nintzen tontorrera, eta ordutik ez zait burukomina pasa. “Tira, normala da”. “Laster pasako zaizu”. “Hartu pastilla hau”. “Orain beste hau”. “Pazientzia”.

Gaur arte. Normala zena, arrunta bihurtu da niretzat. Hobeto nago, baina ez naiz sendatu. Idatzi hau kaleratzen denerako, Covid-a garaitu dugula esango dute. Ziur norbaitek ospatu ere egin duela. Zorionak! Niri gehiago kostatzen ari zait. Korrikako kotxe-eskobak bi aldiz aurreratu ninduen. Eta Gabonetatik ez naiz berriro Arnora igotzen saiatu ere egin.

Bai, lau hilabete igaro dira eta horixe da hain juxtu, Covidak nigan utzi duen ondorioa. Mont Blanc eta Arnoren artean dagoen diferentzia. 4.200 metro.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

INORK NAHI EZ GENUEN EGUNA HELDU DA...

Esaten dute pozik egon behar garela, baina ezinezkoa da. Alderantziz, mina eta amorrua dira nagusi gure barnean. Mina, pertsona zoragarri bat joan delako gure artetik. Amorrua, geure buruarekin, ezin izan dugulako ezer egin. Amorrua, Jaungoikoarekin (existitzen bada) gauza hauek onartzearren. Amorrua medikuekin gaitz hau ez sendatzearren. Amorru pixka bat zeurekin ere, Lander, gauza asko barruan gorde duzulako gu lasaitzearren. Baina zurekiko amorru hori egunak pasa ahala miresmen bihurtzen ari da, zure jarrera ez delako izan errealitateari bizkarra ematea edo guri errealitatea ezkutatzea, alderantziz. Guk ez dugu errealitate hori ikusi nahi izan. Zuk erakusten zenuen lasaitasun eta katxondeo horrekin guztia argi esan zenigun, sufrimendua gutxituz besteoi. Haundixa zea Paletas!

Zenbat gauza geratu zaizkigun esateko eta egiteko, zenbat, Xarkei! Zure eredua eta bidea jarraitzen saiatuko gara, zaila izango da zu gabe bide hori egitea, zure hutsunea inork ezingo du bete, zu modukorik ez dagoelako, Lander. Baina hutsune hori zurekin gogoratuz saiatuko gara betetzen, barrez eta negarrez. Denbora pasako da eta lasaituko da barnean daukagun min hau, baina inoiz ez gera zutaz ahaztuko. Haundiegia zinen mundu honetarako, lagun maitia.

Jarraituko dugu preso eta iheslari guztiak etxean izan arte bidea egiten, independentzia lortzearren borrokatuko dugu, Arnora joaten jarraituko dugu, tipi-tapa Korrikan ere izango gara euskararen alde, gure gazteak Pirinioetako gailurretara eramango ditugu, Mutrikuko mendi martxan ere egingo dugu korrika edo oinez, guraso elkarteko saltsetan ere arituko gara gure seme-alaben etorkizuna hobetzeko, udaletxean lan egingo

dugu Mutriku hobetzeko eta, nola ez, baratzan lanean jarraituko dugu sasiak kentzen itsaso zabal eder horri begira. Hutsik egin gabe San Silbestre eguna ospatuko dugu eta egun berean bi aldiz mozkortuko gara eta taburete gainera altxatuko gara kantatzen. Eta zu, artista, gurekin egongo zara, gure bihotzetan. Ze zorte eduki dugun zu ezagutzeaz eta bide labur hau zurekin egin izanaz!

Alaitz eta haurrei besarkadarik beroena, horixe merezi duzue eta.

Zu, Alaitz, ama, emazte, lagun... berak esango zuen bezala 10 puztarri.

Joneri besarkada bero eta potolo bat, eta zorionak eduki duzun anaiagatik.

Eta Joxe Agustini eta Itziarri mila esker horrelako semea mundura ekartzearren eta eman dizkiozuen balio eta bihotz haundi horregatik, bikain.

Beno, Xarkei, bihotz-bihotzez eskerrik asko zure adiskidetasunagatik eta ohore bat izan da zu ezagutzea. Maite zaitugu lehen, orain eta beti. Bukatzeko, zuk geuri esaten zenigun bezala... EUTSIII KOÑOOO! Hurrenarte, Adiskide.

Piku, Arrate eta Ekaitz



LANDER ELEZGARAI MAIZ

AGURRIK BEROENA ETA ESKERRIK SENTITUENA SAMINEAN LAGUN ETA GURE ONDOAN IZAN ZAITUZTEGUN GUZTIOI

Elezgarai-Maiz familia

LANDER ELEZGARAI MAIZ "PALETAS"

Lagun alaia, irribarre errazekoa, Barpuerto konpainiako danbor jolea, gure danborrak ez dira Donostiakoak bezalakoak hobeagoak baizik birziklatuak direlako.

Gure ereserkiak dioen bezala, *Guk jan izaten ditugun angulak ez dira Donostiakoak bezalakoak, gureak begi gabekoak dira, gure konpainiak ez du udaletxean ikurriña jartzen Mauelen leihoan baizik*.

Pandemia kontu honekin aurten bigarren aldia izan da ez garela irten, baina datorren urtean ere gurekin egongo zera. Jakin dugu zauden lekuan konpainia berria bat antolatzen ari zarela. Elkartzen garenean kriston danborrada antolatuko degu.

Elkar ikusi arte, lagun, eta ondo izan.

Bar Puertoko lagunak



ESKERRIK ASKO, LAGUN

Joan haiz Lander, ez zegok bueltarik. Bihotz apurtu asko utzi dituk hemendik. Hileta egunean Mutrikun egon besterik ez zegoan hire galerak utzi diken orbaina ikusteko. Badakik, izugarri maite haut, hire galerari aurre egitea asko kostatuko zaidak. Kantauri itsasoa ikusten diaten bakoitzean, Realaren partidu bakoitzean, "Gasteiz" entzundako bakoitzean, ezin izango diat hire oroitzapena ekidin. Eta ez diat ahaztu nahi. Berriro ikusiko ez hautela jakiteak barrua apurtzen zidak egunero Lander, baina hire lagun izateak ematen zidaken pozak min horrek baino indar haundiagoa zeukak.

Beti eramango haut bihotzean, eskerrik asko LAGUN.

Iban Iparragirre

Berriro taula gainera

Mutrikun sortutako Delirium Tremens euskal pop-rock taldeak mila bederatziehun eta laurogeita hamar inguruan izan zuen arrakasta haundiena, kontzertu ugari emanik Euskal Herrian zein erbestean. Bi mutrikuar, Andoni Basterretxea (gitarra eta ahotsa) eta Juan Jose Yurrita (bateria) izan ziren taldearen ardatz. Gaurkoan Andonirekin gogoratu ditugu orduko ibilerak, eta maiatzean BECeko tranpaldora igotzearen nondik norakoak.

Nolakoak izan ziren zuen hasierako pausoak taldea sortu aurretik? Zeintzuk osatu zenuten taldea?

Gazte denbora hartan beti zegoen nire buruan taldetxo bat antolatzeko asmoa, baina ez genuen oinarrizkoak ziren ez instrumenturik ez lokalik. Itsasoan lanean hasi nintzenean erosi nuen lehen gitarra elektrikoa. Juantxorekin (orduan Txufu) elkartu nintzen 1983an, eta biok hasi ginen entseguak egiten haren familiak Burumendiko etxeetan zuen lokal batean, bateria erosi bitartean tresna apalagoekin saiatuz.

Baina 1984ko udaran, atunetara joan behar nintzenez, utzi egin behar, eta Juantxok hango eta hemengo batzuekin jarraitu zuen entseguak egiten. Arrantza denbora bukatzean bueltatu nintzen entseguetara, ordurako garbi neukan nolako taldea nahi nuen, eta, han zirenetatik, soilik Jabier Bilbatua baxu-jotzailea gelditu zen. Horrela, hirurok osatu genuen taldea, baina urte eta erdi batez, orduan nahitaezkoa zen soldaduska egin behar, eta berriro utzi behar. Hala ere, maketa bat grabatzea lortu genuen, eta bide sendoago bat hasteko asmoa hartu soldaduska bukatzean, etxeko baimenak lortu ondoren kainabera utzi eta gitarraren giderrari eusteko.

Lehen emanaldiak non eta nolakoak izan ziren?

Lehen emanaldi ofiziala Mutrikuko frontoian izan zen 1986ko otsailaren 23an Hertzainak taldearen emanaldi batean, orduan prestatuta genituen lauzpabost kantuekin. Baina esan beharra daukat urte bat lehenago Juantxo eta biok bakarrik ausartu ginela, herriko frontoi aurrean zegoen Kiñu tabernan, eta kristoren harrera lortu. Ondoren, betiko gaztetxe, taberna, eta ohikoak ziren lekuetan aritu ginen.

Hurrengo emanaldiak izateko zorte handia izan genuen Angel Azkarraga "Matxitxa" mutrikuarrak zuen musika-eragintza tarteko. Pilo bat aukera izan genuen zenbait talderekin, hasierako-talde bezala jo eta gure taldea ezagutarazteko.

Esan, baita ere, 1987an Patxi Irisarri eibartarrak ordezkatu zuela baxoarekin Jabier Bilbatua, eta beranduago, 1989an, bigarren gitarra bezala gehitu zela taldera ibilbide luzea zuen Iñigo Muguruza.

Zein diskoetxerekin izan zenuten lehen kontratua, eta zein lan kaleratu zenituzten?

Lehen diskoa Oihuka diskoetxearekin grabatu genuen 1987an "*Hemen Denak Berdinak Dira*" Zarrapo talde nafarrarekin batera gure bost kantu bertan sarturik. Grabatutako bigarren diskoa "*Ikusi eta Ikasi*" izan zen 1989an, arrakasta handia izan zuen, eta emanaldiak ugaritu. Ondoren, 1990ean, "*Hiru Aeroplano*", azken diskoa grabatu genuen Oihukarekin.

Iñigok Negu Gorriak taldekideekin sortutako Esan Ozenki diskoetxearekin egin genuen "*Bilbo zuzenean*" gure azken kontzertuko testigantza zuzena.

Noraino iritsi ziren une arrakastatsu haietan zuen emanaldiak?

Euskal herri osoan ibili ginen. Hegoaldera eginez bi lekutan bakarrik eman genituen kontzertuak Madrilgo Vallecas-en eta

30 URTE ETA ITZULERA

Nolakoak izan ziren zuen hasierako pausoak taldea sortu aurretik? Zeintzuk osatu zenuten taldea?

Gazte denbora hartan beti zegoen nire buruan taldetxo bat antolatzeko asmoa, baina ez genuen oinarrizkoak ziren ez instrumenturik ez lokalik. Itsasoan lanean hasi nintzenean erosi nuen lehen gitarra elektrikoa. Juantxorekin (orduan Txufu) elkartu nintzen 1983an, eta biok hasi ginen entseguak egiten haren familiak Burumendiko etxeetan zuen lokal batean, bateria erosi bitartean tresna apalagoekin saiatuz.

Baina 1984ko udaran, atunetara joan behar nintzenez, utzi egin behar, eta Juantxok hango eta hemengo batzuekin jarraitu zuen entseguak egiten. Arrantza denbora bukatzean bueltatu nintzen entseguetara, ordurako garbi neukan nolako taldea nahi nuen, eta, han zirenetatik, soilik Jabier Bilbatua baxu-jotzailea gelditu zen. Horrela, hirurok osatu genuen taldea, baina urte eta erdi batez, orduan nahitaezkoa zen soldaduska egin behar, eta berriro utzi behar. Hala ere, maketa bat grabatzea lortu genuen, eta bide sendoago bat hasteko asmoa hartu soldaduska bukatzean, etxeko baimenak lortu ondoren kainabera utzi eta gitarraren giderrari eusteko.

Lehen emanaldiak non eta nolakoak izan ziren?

Lehen emanaldi ofiziala Mutrikuko frontoian izan zen 1986ko otsailaren 23an Hertzainak taldearen emanaldi batean, orduan prestatuta genituen lauzpabost kantuekin. Baina esan beharra daukat urte bat lehenago Juantxo eta biok bakarrik ausartu ginela, herriko frontoi aurrean zegoen Kiñu tabernan, eta kristoren harrera lortu. Ondoren, betiko gaztetxe, taberna, zein ohikoak ziren lekuetan aritu ginen.

Hurrengo emanaldiak izateko zorte handia izan genuen Angel Azkarraga "Matxitxa" mutrikuarrak zuen musika-eragintza tarteko. Pilo bat aukera izan genuen zenbait talderekin, hasierako-talde bezala jo eta gure taldea ezagutarazteko.

Esan, baita ere, 1987an Patxi Irisarri eibartarrak ordezkatu zuela baxoarekin Jabier Bilbatua, eta beranduago, 1989an, bigarren gitarra bezala gehitu zela taldera ibilbide luzea zuen Iñigo Muguruza.

Zein diskoetxerekin izan zenuten lehen kontratua, eta zein lan kaleratu zenituzten?

Lehen diskoa *Oihuka* diskoetxearekin grabatu genuen 1987an "*Hemen Denak Berdinak Dira*" Zarrapo talde nafarrarekin batera gure bost kantu bertan sarturik. Grabatutako bigarren diskoa "*Ikusi eta Ikasi*" izan zen 1989an, arrakasta handia izan zuen, eta emanaldiak ugaritu. Ondoren, 1990ean, "*Hiru Aeroplano*", azken diskoa grabatu genuen Oihukarekin.

Iñigok Negu Gorriak taldekideekin sortutako *Esan Ozenki* diskoetxearekin egin genuen "*Bilbo zuzenean*" gure azken kontzertuko testigantza zuzena.

Noraino iritsi ziren une arrakastatsu haietan zuen emanaldiak?

Euskal Herri osoan ibili ginen. Hegoaldera eginez bi lekutan bakarrik eman genituen kontzertuak Madrilgo Vallecas-en eta

Almeria probintziako herri batean. Iparralderantz joaz, Italian, Suitzan, Galesen eta Londresen izan genituen emanaldiak.

Taldeko kanta-idazle izan zara… Nola lantzen zenuen? Eta orduko mezuek gaurko balio al dute?

Beste pertsonen iturri emariak erabili izan ditut gehienetan. Entzuten saiatu izan naiz, adinekoei batik bat, eta kazkarrak egindako ideien hausnarketatik atera dira idatziak batzuetan, eta giro sozialari begiratu eta norberarengan sortutako eraginetik bestetan.

Uste dut kantu gehienen mezuak balio dutela gaurkorako ere. Itxura eman arren, pertsonok ez gara hainbeste aldatzen barnetik. Beste batzuk, ordea, giro sozio-politikoa aldatu denez, historiarako besterik ez dira gelditzen.

Eta nola etorri dira orain emandako pausoak, BECera edo aurrerago iritsiko direnak?

Iñigo Muguruza taldekidea, hainbeste giro musikaletan ibili izandakoa, 2019ko irailean hil zitzaigun, eta, bere omenez, inguruan ibilitako jendeak kontzertu bat eskaintzea erabaki genuen Iñigok 55 urte beteko zituen egunean, abenduaren 17an, Bilboko Kafe Antzokian. Horretarako, jakina, bi hilabetez egon ginen entseguak eginez 4 kanta taularatzeko.

Aspaldiko giroan sartzean, barneko harrak eragin zuen gugan, eta, bata ausartago bestea apalago, azkenean Juantxoren indarrak bultzatu gintuen ekiteko erabakia hartzera. Konpromisoa ere ez zen izan makala; egindako kantak errepasatu, eta disko berri bat prestatzen hasi. Hori bai, inolako presarik gabe, lokala lortu eta entseguak egiten hasi, nahiz eta urtebetean kontzerturik ez eman.

Baina laster aireratu ziren gure asmoak, eta *Mauka*, hemengo musika-eragintza garrantzizkoena gurekin harremanetan jarri zen, galdetuz ea eurekin lan egingo genuen. Baietza eman genion, denon artean erabakiz disko bat kaleratzea, beti gure erritmora egokituz, ondoren, agian, Euskal Herriko hiriburuetan aurkezteko. Hala, bi kanta berri grabatu genituen apirilean. Usurbildar Haritz Arreguy produkzio eta soinu teknikaria lagun izan genuen grabaketan, eta, hain "*feeling*" ona sortu zen gure artean, urritik taldeko bat gehiago dela. Abenduan beste sei kanta berri izan ziren grabatu genituenak, horrela diskoari forma emanez.

Gauzak nahasten joan dira, eta sustatzaile bat tarteko, proposamen berri bat onartu dugu: BECen izatea diskoaren aurkezpena apirilaren 28an. Denok kontent diskoa martxan ikustean, eta maiatzaren hasieran kalean izango delakoan.

Eta, ondoren, izango al da emanaldirik?

Aurten ez dugu kontzertu asko emateko asmorik, agian, hurrengoan prestuago izango gara horretarako. Dena den, BECeko emanaldiaren ondoren itxita dugu hiru emanaldi. Ekainaren 17an Gasteizko "Azkena Rock festibal"en. Uztailaren hasieran Iparraldeko "Euskal Herria Zuzenean", EHZ deitua, herri txiki bateko zelai zabal baten, eta hirugarrena Uztailaren bukaeran, Iruña ondoko Berriozar herrian "Hatortxu Rock" festibalean.

ALKOLEA
ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak eta gehiago...

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

HISTORIAURRERA BIDAIA

Apirilaren 7an, Mutrikuko DBH1eko ikasleek Zestoako Ekainberri kobazulora egin zuten bisita Historiaurrea hobeto ezagutzeko asmoz. Hasteko, kobazuloaren erreplika ikusi eta begiralearen azalpena entzun zuten. Ondoren, ehiza-tailerra egin zuten; Historiaurrean erabiltzen ziren bezalako lantzak hartu eta animaliak ehizatzen saiatu ziren. Amaitzeko, kobazulo ingurua ezagutu zuten. Egun ederra benetan!

COVID-19: BERDERA BIDEAN

Herriko egoera Euskal Herri osoan ematen ari den hobetze orokortu batean ikusi behar da, eta hobekuntza horrek, ezaguna denez, osasun-neurriak arintzea ekarri du. Azkena, musukoaren derrigorrezko erabilera kentzea.

Osasun agintaritzak, hala ere, oraindik ere elkarren arteko distantzia zaintzeko, eskuak garbi edukitzeko eta musukoa zenbait toki publikotan erabiltzeko gomendatzen du. Guztia, udaren atarian egoerak okerrera egin ez dezan.



22. KORRIKA ERRONKA

22. Korrika zela eta, apirilak 7an, ostegunean, Mutriku BHI institutuan Korrikari omenaldia egiteaz gain, ERRONKA bat egin genuen.

Ikastetxeko ordutegi barruan (8:00etatik 14:00etara), gure lekukoa eta mezua eskuan hartuz, 800 metroko ibilbide bat txandaka saltaka eginez, maratoi bat egitea izan zen helburua; hau da, 42km pasatxo.

Erronka erabat gainditu genuen, ia 75km egitera iritsi ginelako. Gainera, ikasleen eta irakasleen parte hartzea oso handia izan zen, eta oso egun berezia izan genuen. Horrez gain, gauean herritik pasatu zen Korrika nagusia girotzeko erabili zen.

Antolatzaileak: HNP - TANGARTA - GORPUTZ HEZKUNTZA MINTEGIA

ZAKARRAK GORA ETA BEHERA

Herrian zehar zakarrontzi asko daude han-hemenka egunerokotasunean esku artean sortzen zaizkigun zakarrak bertara botatzeko. Batzuetan, beharbada, gutxiegi daudela pentsa daiteke behar denean hurbil ez badago bat. Hala ere, zakar txikiak eskuetan hartuta hurrengo zakar-potoraino eramatea ere aukera bat izan daiteke.

Zoritxarrez, batzuetan zakar txikiak botatzera joan eta potoa zabor-poltsa handiekin itxita aurkitzen da. Kontzientziarik gabeko herritarren portaera txarrak gauzak ondo egin nahi dituzten herritarren kaltetan.

Hondartza inguruan ere zakar-poto gutxi daudela kexatuta idatzi digu irakurle batek, eta zakar-poto gehiago ipintzeko eskatzearekin batera, kexua agertu du, baita ere, hainbat herritar txakur-jabek txakurren kaka-poltsak bazterretan uzten dituztelako, horiek ere poltsa eskuetan hartu eta pistina parean dauden edukiontzietara bota ditzaketenean.

Ea ba, denon artean herri txukuna lortzen dugun.

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

Elkartasun bidaia zoragarria

2022ko martxoaren 24an, goizeko 7etan kafetxo bat hartu eta bidaiaren helburuak emandako indarrarekin, Agustin Elorza "Pikua" eta Domeka Lasarte "Toxu" furgoneta batean eta Jon Agirrezabalaga eta Joxemari Etxaburu beste furgoneta batean abiatu ziren Mutrikuko goiko geltokitik. Aurrean 2.558 km. Polonia eta Ukraniako mugan dagoen *Przemsyl* herriraino, gure herrikide den Alexiak *Ivano Frankivsk* bere herriko udalari agindu bezala, argi egiteko sei generadore, hainbat janari, gizonentzako jantziak eta botak, garbiketarako osagaiak, botikak, bendak, esparatrapuak eta beste hainbat gairekin jasotako 2.000 kilo eramatea helburu hartuta.

ABIADA

Mutrikutik abiatuta, Itziarren autopista hartu eta joan eta joan eta gero, 1.239 km eginda, etxetik eramandako mokadu batzuk egin eta kafe batzuk hartuta, Alemaniako mugara zuzendu ziren, *Ottmarsheim* herrira. Alemanian zehar 364 km eginda, Txekiar Errepublikan sartu ziren *Rozvadov* herritik. Txekian 541 km eginda, tartean *Olomuc* herria zeharkatu zuten, bide bazterrean EIKAko lantegia ikusita. Poloniako muga *Bohumín* herrian zeharkatu zuten, helmuga apur bat gertuago ikusten hasteko. Azken 401 km egiteko prest zirenean ukrainiar lagunek helmugako lekua aldatu zieten eta kilometro batzuk gehitu behar izan zioten ordura arte egindako bide luzeari.

Bidaiaren helburua materiala eraman eta errefuxiatuak ekartzea izanik, *Przemsyl* herrira heltzear zirenean, Euskal Herrira errefuxiatuak ekartzeko lanean dabilen Galdakaoko GBGE elkarteko arduradunak deitu zien esateko zoritxarrez ez zeukatela inor bere bilgune-basean hona ekartzeko bezala.

Ez zen berri ona izan eta orduan pentsatu zuten *Przemsyl* herrian dagoen herrialde desberdinetako elkarteek prestaturiko errefuxiatuen base nagusian furgonetak eskaintzea itzultzeko bidaian jendea ekartzeko.

Errefuxiatuen basea izugarri haundia da, utzita zegoen gune komertzial handi bat oso-osorik hartu dute horretarako eta bertan hainbat herrialdetako bolondres errefuxiatuen harrera hobea egiten saiatzen dira, haientzako bizitoki berriak aurkitzeko edo errefuxiatuek herriren batean familia edo lagunak dituzten kasuetan haiekiko harremanak bideratzeko. Bidaian jarraitu artean, atseden gune egoki batean jaso, janari epela eman eta bake gune bat eskaintzen zaie.

Base hartan arazoak jarri zizkieten mutrikuarrei bere borondatea gauzatzeko, zeren azken asteetan arazo larriak izan baitziren kontrolik gabe eramandako errefuxiatu batzuk desagertu egin

optika
ALAZNE OPTIKA
Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

zirelako. Hori ikusita, bidaiaren azken helmugara bideratzea pentsatu zuten Joxemarik, Jonek, Domekak eta Joxe Agustinek.

Ia 2560 km autopistetan zehar egin eta gero, azken 60 km-ak mendi bide batetik egin eta, azkenik, martxoan 25eko iluntzeko 6rak aldera, Polonia eta Ukraina bitarteko mugan dagoen *Przejscie Graniczne Kroscien*-eko mugako kontrol gunera iritsi ziren. Bertan, Poloniako Gurutze Gorria, polizia, suhiltzaileak eta bolondres batzuk errefuxiatuentzako gune batean. Muga gainditu ezinik, Mutrikun zegoen Alexiaren bitartez telefonoz ukrainiarrekin bat egiteko gune berria adostu eta, azkenean, Mutrikutik eramandako materiala beraien eskuetan jartzea lortu zuten. Lan erdiak eginda.

ITZULERA

Ukrainako muga jota, etxera itzultzeko ordua iritsi zitzaion laukoteari, eta bederatzi errefuxiatu ekartzeko bidaiaren hasieran hartutako helburua betetzeko modua ere sortu zitzaien. Izan ere, GBGE elkarteko ordezkariak deitu zien beraien basean sei lagun zeudelako Donostiara eramateko moduan. Horretarako, atzera egin eta Poloniako *Katowice*ra herrira joan beharra izan zuten, 400 Km. atzera eginda. Nekatuta, baina pozik, bidaiaren helburua horixe zen eta. Etxetik irten zutenetik ordu asko eginda, atseden hartu eta zerbait beroa jateko tartea hartu zuten.

Biharramonean, martxoaren 26an, goizeko 5etan jaiki eta abante, gasolindegiko kafetegian kafe beroa hartu eta bidaiaren ordura artekoak komentatu ostean. Goizeko 9etan *Katowice* herriko fraile frantziskanoen monastegira heldu ziren, GBGE elkarteak ukrainiar errefuxiatuentzako Polonia guztirako zentralizatutako basera. Han zeuden zain Anna eta Alena, beraien lau umeekin Donostiara eramateko. Aurreko gauean izututa heldu ziran monastegi hartara, hainbat egun beraien herritik iheska egin eta gero. Aurpegian nekea eta guda horretan txarto pasatu dutela agerian.

Joxemariren ingeles apurrarekin eta mugikorreko itzultzailearen bitartez lehenengo harremana egin zuten, ukrainierazko hitz batzuk tartean, *da* (bai), *niet* (ez), *priviat* (kaixo), *jakuí* (eskerrik asko), eta Etxaburutarren etxean Txernobiletik etorritako Boba, Katya eta Petyaren berri emanda, mundua painueloa, ezagutzen zituztela jakin! *Txernobil* herrikoak batzuk eta *Ivankiv* herrikoak besteak, 5 km-ra dauden herrietakoak, Mutriku eta Ondarroa bezala.

Katowice herritik abiatu eta bueltako bideari heldu. Bidaian zetozela, Annaren eta Alenaren ahizpa Alemaniako *Karlsruhe* hirian zegoela eta ea jaso zezaketen galdetu zuten. Nola ez. Anastashia eta bere seme Dennis *Karlsruhe* hiriko tren-geltokian jaso eta Ukrainako mugan hustutako furgonetak bederatzi ukrainiar errefuxiaturekin beteta buelta etxera. Pozik, baina triste ere bai, familia hark pasatu behar izan zuen ibilbide larria ikusita. Hiru ahizpek beraien 52 urteko ama Galina, hiru senarrak eta beraien bizitza guztia Ukrainan utzi, lau arropa hartu eta ihes, bakean bizi den herri

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

batera joateko.

Karlsruhe hiritik irten eta Donostiaraino eramango zituen autopistan sartu ziren. Gasolindegietan erregaia hartu eta jan-edana eginda, segi bidean. Sei egunetan elkar ikusi gabe egon ondoren, hiru ahizpak elkarri besarkatuta dantzan saltoka, ikuspegi zoragarria beraien aurpegietako irribarrea izugarri handitzen. Poztasuna begietan nabari, malkoak begietan. Une hunkigarri harekin, bidaiaren helburu erdia behintzat lortu zutela eta egindako esfortzuak balio izan zuela pentsatu zuten lau mutrikuarrek.

EUSKAL HERRIRA HELDU

Arratsaldeko 4rak aldera *Angulem*era iritsi, *Bordele* pasatu eta ia-ia etxeko atarian. Martxoaren 26an, iluntzeko 8ak aldera, Poloniako *Katowice*tik 2.300 bat kilometro egin eta gero, Donostiara iritsi ziren, zehazki La Sirena aterpetxera, Donostiako Ondarreta auzora. Han, Marian eta Kiko TXERNOBIL Elkarteko lagunak denen zain. Orain 30 bat urte elkar ezagutzen dute Etxaburutarrek, bikote jatorra eta beti jendearen alde lan egiteko prest. Ukrainiar ahizpak eta seme-alabak Aterpetxe horretan gelditu ziren, egun batzuk bertan eman eta ondoren etxe batera bideratzeko asmotan. Malko bat baino gehiagoren artean beraiekin agurtu eta milaka eta milaka esker jasota, Mutrikurako azken etapa laburrena egitera.

5.400 bat kilometro egin dituzte guztira Ukraina mugara joan-etorrian, asko ez dute jan, atsegin gutxi hartu dute, hotza pasatu dute, baina 5.400 esker baino gehiago jaso dituzte Ukrainatik bidelagun etorri diren errefuxiatuen aldetik eta, nahiz eta fisikoki beraiek Donostian gelditu, lau mutrikuarrek beti izango dituzte bihotzetan gordeta familia hauek, beraien bizitzaren gogortasuna ezagutu eta apur bat leuntzeko esfortzu txiki honek balio izan duelakoan.

ETXEAN, MUTRIKUN

Etxera heldu aurretik, *Ivano Frankivsk* herritik argazki batzuk jaso zituzten, bertako alkateak eta herrikideek Mutrikutik bidalitako argi generadore eta janariekin gustura daudela esanez eta eskerrak emanez. Mutrikuko herriari eskerrak emateko eskatu zieten, egindako ahalegin guztiengatik.

Itxuraz, aurreko asteazkenean Mutrikuko eleizako parrokoak iluntzeko mezatan lau mutrikuarren alde emandako bedeinkapenak ere bere fruituak eman zituen. Hori pentsatuko dute fededunek.

Itziarko tabernan gelditu eta garagardo batzuen inguruan eserita, bidaiaren poztasun guztiak ahaztu zituzten. Ordurako ez zeuden nekatuta, egindako lana aberasgarria izan zelako eta, ia-ia, biharamunean bertan esperientzia eder eta polit hura errepikatzeko gogoarekin heldu ziren berriro ere etxera, Mutrikura.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Agur bero bat eta mila esker bezero guztiei!
zuek izan zarete nire laneko bizipoza

aek 22. korrika

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Apirilaren 7an hitzordua izan genuen Mutrikun **Korrika**rekin, eta aurtengoan ere mutrikuarrok ez genion hutsik egin. Batzuentzat hogeita bigarrena izango zen, beste batzuentzat aurrenekoa. Batzuek eta besteek, korrikaldi laburrarekin edo luzearekin, beren konpromisoa erakutsi zuten euskararekiko. Izan ere, horixe baita *Aek*-k antolatzen duen ekitaldi honen xedea: euskararekiko konpromisoa berrestea, berritzea, eta herritarrak euskararen ondora hurbiltzea.

Gurean aipagarria dugu herriko 8 kilometroetan 42 elkartek hartu dutela parte, eta elkarte horiek erakarrita zientoka lagunek. Mutriku ere **Korrika**ren alde. Elkarte horiek dira herriaren bihotza, herritarrok eguneroko gure ekintzak aurrera eramateko antolatzeko ditugun erremintak, eta aurrera begira ere elkarte horiek euskaraz jardungo dutela erakutsi zuten beren konpromisoarekin.

Hitza, Arraun Taldea, Mutriku Futbol Taldea, Sokatira Taldea, Rugby Taldea, Jauja Eskubaloi Taldea, Sorginerreka Eskalada Taldea, Danok Bat Pilota Elkartea, Errealaren Lagunak, Athletic Peña, MUBAE, Zine Forum, MRK, Bai Txo! Euskara Elkartea, Idurre GurasoElkartea, Institutua, Goizeko Izarra Ikastola, Saturran Guraso Elkartea, Samiela Ikastetxea, Samielako Guraso Elkartea, Anaiarte Jubilatuen Elkartea, Kalaputxi Herri Aldizkarixa, EMA eta Batukada Taldea, Erraldoi konpartsa, Zabiel Eskulan Taldea, Presoen lagunak, Goizeko Izarra Antzerki Taldea, Bertan Merkatarien Elkartea, Natur Taldea eta B+I, Kardala Institutua, EAJ, EH Bildu, Mutrikuko Udala, Arte Eskola, Musika Banda, Bertso Eskola, Gure Ametsa Dantza Taldea, Txistulari Taldea, Gaztetxea, Txantxangorri Aisialdi Taldea, Tranpan Behera Inertzia Taldea, Burumendi Mendi Elkartea eta Atxukale Txirrindulari Taldea.

Bi urtean behin izaten dugun euskararen aldeko ekimen eder hau itzuli artean egunero hartuko dugu kontuan berritutako konpromisoa, gure eguneroko bizimoduan, eguneroko ekintzetan euskara erabiliz, Hitzekin: hemen gaude euskararen alde.

Gure aurretik Korrika bultzatzen horrenbeste lan egin zuten eta utzi gintuztenak gogoan hartu eta haiei eskerrak ematea ere bai, haiek duela berrogei urte eta gehiago ereindako hazitik etorritako landararen lorea izan baitzen apirilaren 7koa.

Eta, nola ez, Korrika gure herritik hain modu arrakastatsuan igaro ahal izateko Aurok gidatuta horrenbeste lan egin duzuen **Korrika**-batzordekideoi, ESKERRIK ASKO!

KALAPUTXI

HITZA

Arraun Taldea

Mutriku FT

Soka Tira Taldea

Rugby Taldea

Jauja Eskubaloi Taldea

Eskalada Taldea

Danok Bat Pilota Elkartea

Athletic Peña eta Errealaren Lagunak

MUBAE

Zine Forum Taldea

MRK

Bai Txo! Euskara Elkartea

Idurre Guraso Elkartea

Institutuko ikasleak

Goizeko Izarra Ikastola

Saturran Guraso Elkartea

Samielako Guraso Elkartea

Samiela Ikastetxea

Anaiarte Biltokia

Kalaputxi Herri-Aldizkarixa

EMA eta Batukada Taldea

Erraldoien Konpartsa

Zabiel Eskulan Taldea

Presoen Lagunak

Goizeko Izarra Antzerki Taldea

BERTAN

Natur Taldea eta Berdeak+Independenteak

Kardala Institutua

Euzko Alderdi Jeltzalea

EH Bildu

Mutrikuko Udala

Arte Eskola

Musika Banda

Bertso Eskola

Gure Ametsa Dantza Taldea

Txistulari Taldea

Gaztetxea

Txantxangorri Aisialdi Taldea

Tranpan Behera Inertzia Taldea

Burumendi Mendi Elkartea

Atxukale Txirrindu Taldea

Herri honen eztarritik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

Oihu honek hogeita bigarrenez erakutsi digu hizkuntza bat ez dela hitzekin egiten bakarrik, hitzekin eta gorputzekin baizik. Belaun eta hanken gainean trostan eraman daitekeela hitza; dardara, arnasestu eta izerdi artean pasatu ahal zaiola elkarri eskutik eskura.

Hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena du Korrikak. Gure a e i o u partikularra gorpuzteko. Eta hori behar du euskarak: haragi bihurtzen diren hitzak.

Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatu eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea.

Zikindu dezagun, beraz, euskara; lohitu dezagun bizitzaz. Eta egin dezagun euskararekin hainbat inertziaren kontra:

Hitzak hustu egin diren garai batean, bete ditzagun euskararen berbak harri eta herriz.

Dena erosi eta saldu omen daitekeen garaian, erakutsi dezagun zein merkea den gure hizkuntza: debalde hartzen dugu herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

Indibidualismoa indartuz doan garaian, egin dezagun euskara kolektibo bat, denon artean eta denona.

Gerren sasoian, lehenetsi dezagun beti hitza.

Influenzer eta Youtuberren aroan, izan ditzagun guk besteleko jainko txiki inspiratzaileak.

Euskararen pronostikoa gugan dagoela gogorarazi zigun Pello Zabalak, adibidez.

Edo euskaraz harrotasun eta apaltasun hitzak bateragarriak direla erakutsi zigun Joan Mari Torrealdaik.

Edo euskara ez dela zaila, euskara nahia dela erakutsi zigu-ten Elbira Zipitria, Julene Azpeitia edo Izaskun Arrue bezalako andereñoak.

Eta etiketen garaian, ahaztu ditzagun behingoz euskaldun berri eta zaharrak. Iraultza honetan, lasterketa honetan, denok garelako euskaldun berri. Hizkuntza bat egunero hasten delako, egunero berritzen delako. Hizkuntza bat ez delako jaiotzen, egin egiten delako.

Sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik.

Eta atera dezagun gure eztarrietatik Mauriziaren irrintzi baten indarraz.

Ekin euskarari, eutsi kateari!

Gora Korrika eta gora euskara!

Karmele Jaio

Malutarik onenak, Mutrikukuak (II)

Adin batetik gorakuei gure herriko abizen batzuk entzunda maluteruen lana etorriko zakue gogora: Mendizabal, Belaustegi, Lete, Maiz, Basterretxea, Barrenetxea, Landa, Sustaeta... Izan ere, urteko sasoi jakin baten, Mutrikuko famelixa askok jarduten zeuen malutak egitxen.

Joxemiel Barandiaran ezagunaren illoba batek, Felipe Barandiaranek, Pasaeko –Pasai Donibane– arrantzalien berri eman zoan antropologia lan baten (1982). Atunetarako malutia –edo bertan esaten dan bezela "txurikina"– Mutrikutik ekartzen zeuela azaltzen deu: *"...eran los pescadores de Motrico quienes, en temporadas de invierno o en días de descanso forzoso, se consagraban a esta tarea de preparar los txurikinak. Estos pescadores, metidos a artesanos, preparaban, según dicen, las hojas de maíz..."*.

Arrantzale batzuk, malutak prestatzeko sasoian, itsasora juatiari laga eta lihorreko lan hartan hasten ziran. Horren erakusgarri, Mutrikuko Arrantzalien Kofradixak 1932ko iraillaren 20xan hartu zoan erabakixa: bazkide edo soziuek, maluta-lanetan hasteko asmua euki ezkero, gitxienez egun bateko aurrerapenarekin eman bihar zeuen horren berri. *"Se acuerda también poner, por medio de un aviso, en conocimiento de los socios que se dedican a "malutas" que den conocimiento con antelación de un día, cuando dejen de pescar y empiecen a trabajar en tierra, así como cuando vuelven a la mar"*.

Urteko sasoi jakin bateko lan harek lagun asko jartzen zitxuan "dantzan": artazuritzen, sufria ematen, txortak egitxen, kajatan antolatzen, bezeruei karriatzen... Langille batzuk famelixakuak ziran, baina ez danak, izan ere baziran jornalaren truke lan egitxen zeuenak, bai Mutrikun, bai urrutiko arto-sailletan. Zeintzuk izan ziran gure herriko maluterorik ezagunenak?

MENDIZABALDARRAK

Izen haundiko maluta-egintzailliak izan ziran Mendizabal famelixakuak. "Moreno" edo "Moeno" ezizena aitxatu ezkero mutrikuar guztiek jakingo deue zein dan famelixa hori.

Guk dakigula, Alejandro Mendizabal Solupe (1876-1951) izan zan famelixa hortako lehelengo maluterua. Baiña bera baiño malutero entzutetsuaguak izan ziran bere bi seme honek: Jose Javier Mendizabal Furundarena eta Francisco Ramon Mendizabal Furundarena.

Mendizabaldarrak Itziar, Arrua, Zestua eta Zumaia aldera juaten ziran malutak batzera, eta hanguak amaitzen ziranian baitxa Azpeitxira ere, izan ere Azpeitxia aldeko malutak hamabost bat egun beranduago etortzen ziran. Sarritxan bertako emakumiak kontratatzen zitxuen artaburuei malutak kentzeko. Arrua goikuan, esate baterako, sei emakume ibiltzen ziran lanian. Sasoi baten trenez eta oiñez juaten ziran batera eta bestera. Astua ere erabiltzen zeuen jenerua karriatzeko. 1965. urtian kotxia erosi zeuen, eta horrek dexente erreztu zixuen lana.

Jose Javier (1905-1964) eta Kontxa Larrañaga (1903-1974) andra-gizonek Zubiagan, Mataderixa aurrian, lokal edo bodega bat zaken; eta bertan malutei sufre tratamendua emateko egurrezko "baula"edo kutxa, *"malutak gozatzeko eta bide batez kontserbatzeko"*. Errenterixa edo Donostia aldetik ekartzen zeuen sufria, 25 kiloko zakuetan. Aurrerago, egurrezkuen ordez, porlanezko kutxa edo kajoiak jarri zitxuen.

Malutak prestatzeko, berriz, etxeko sukaldian batzen ziran. Jose Javier eta Kontxa andra-gizonak beuren bost seme-alabekin. Horrezaz gaiñera herriko hiru edo lau andra ere juaten zakuezen txortak egitxen laguntzera: Ramonita eta Miren "Goixarri", Valentina Iturrino... Aitxak gurizekin neurri batera ekartzen zitxuan malutak, *"berdindu egitxen zitxuan, saltzeko"*.

Mendizabal Larrañaga famelixako hiru anaixa ibilli ziran malutero: Alejandro, Patxi eta Anjel.

Maluta-txorta harek toki askotara bialtzen zitxuen. *Efectos*



Atuna

Zimarroia

Navales-etara batez ere: Santander, Asturias eta Galiziara. Herri batzuetan asko saltzen zan, Coruñan eta Burelan esaterako. Bizkaiko eta Gipuzkuako portuetara ere bialtzen zitxuen malutak, Ondarrura, Lekeitxiora, Bermiora, Getariara...

Jose Javierren anaixa, Francisco Ramon Mendizabal Furundarena (1907-1987), urte askuan ibilli zan maluten negoziuan; Maria Ozkorta (1907) andriarekin batera, jakiña. Tranpakalian zakezen malutak sufriarekin "fumigatzeko" egurrezko kajak. Jontxu Elordi igeltseruak goguan daka oraindik, Montalibeteko ganbaran, egurrezko kutxen ordez adreillu eta porlanarekin egindako harraskak jarri zeuenekua.

Mendizabaldarrak malutak egitxen bakarrik ez, negoziuan ere abillak ziran. Herrixan malutak egitxen ibiltzen ziran famelixa batzuei jenerua erosten zixuen, Errondanekuei, Maldomiñekuei eta letetarrei konparaziotarako. Gero eurek saltzen zeuen hara eta hona.

Kontuan hartzen badegu malutia oso ariña dala eta ez dakala pisu haundirik, atentziua emateko moduko datuak dira honek: Alejandro Mendizabal Solupek 1938an 29 kilo maluta bialdu ziozen Vigora Juan Roses jaunari. Trenez bialdu zitxuan maluta-txortak.

Jose Javierrek Mendizabal Furundarenak, berriz, urte hartan 6 kilo ("de hojas de maíz") bialdu ziozen trenez Bermioko Anselmo Zabalari, eta beste 6 kilo herri bereko Anastasio Munitis-i.

Mendizabaldarrak makiña bat maluta-txorta saldutakuak dira, bai horixe! Patxi Mendizabalek esan digun bezela malutak lan haundixa eskatu arren gustagarrixa zan, *"lana gustau egitxen zaten, halaixe ohitxu giñan gu txikitxatik"*.

Erdikokaletik Frontoi kalerako tunelian famelixa hortako malutero baten irudi dotoria ikusi leike, Anjel Mendizabal Larrañagarena hain zuzen ere.

LETETARRAK

Kasu hontan ere gurasoengandik seme-alabengana pasatu zan malutero lana. Manuel Lete Saizarbitoria (1877-1949) eta Cipriana Mugerza Usagasti (1880-1861) andra-gizonek behintzat malutak egitxen jardun zeuen. Gero, Jose Luis Lete Mugerza (1917-1970) semiak eta haren andriak (Nati Urreizti Azkarraga, 1920-2012) jarraitxu zeuen. Eta baitxa euren seme-alabek ere, Jose Luisek eta Mari Carmenek.

Solotik artuak batutakuan baserritxarrek ematen zixuen abisua: *"listo doz artuak zuritzeko, etorri ahal dezuenian"*. Kuadrillia batu eta Mutrikuko hainbat baserritxatara juaten ziran letetarrak malutak hartzera: Arana, Iturritza, Aritza, Etxetxiki, Leizarren, Langa haundi, Langa txiki... Han ibiltzen ziran, kontu kontari, malutak apartatzen. Eta, jakiña, baserrixetara oiñez juan, oiñez etorri.

Jeneralian etxeko andrak juaten ziran, baitxa jornalaren trukian ibiltzen ziran beste andra batzuk ere. Itsaso txarra zauanian gizonezkuak ere ibiltzen ziran artazuritzen.

Letetarrak goizeko 8etan edo 9etan juaten ziran baserrixetara eta, askotan, bertan ematen zixuen bazkaltzen. Gaur arte iraun doan harremana sortu zan portuko eta baserriko mutrikuarren artian. Famelixakuez gaiñera talde zabalagua alkartzen zanian bazkalostian juaten ziran, hamabi eta erdixak ezkero.

Zuritxu ahala otarra batera botatzen zitxuen malutak, eta betetzen zanian handik zaku haundi batera. Baserritxarrek eurek eruaten zixuezen malutak, plazara bajatzen ziranian.

Letetarrak hasieran herriko baserrixetan ibiltzen ziran batez ere, baiña Arrua aldera ere juaten ziran, han Mutrikukuen aldian artasail haundixak zozen-eta. Baitxa urrutirago ere: Jose Luis Lete Iruñeraiño ere juaten zan maluta billa. Astebete edo bi aste ematen zitxuan han, izan ere anaixa Jexux bertan bizi zan. Lanerako hango andrak –jornalerak– kontratatzen zitxuan eta malutak, kamoian, zaku haundixetan ekartzen zitxuan Mutrikura. Naparruako malutak bertakuak baiño haundixaguak ziran.

Etxeko sukaldian, biribillian jarritxa, egitxen zitxuen txortak.

Negu guztian eta udaberrixa amaitxu arte ibiltzen ziran zeregin hartan. Itsaso txarra zauanian arrantzatik bizi ziran letetarrak ere maluta lanetan laguntzen zeuen, baitxa famelixako umiek ere, eskolatik bueltan. Zahar eta gazte, danak alkarrekin. Etxekuez gaiñera, hiru-lau andra eukitzen zitxuen etxian maluta txortak egitxen; gero kajetan ipiñi eta bezeruei bialtzen zixuezen, Santanderra, Santoñara, Laredora, Bermiora, Lekeitxiora, Ondarrura, Getariara...

Maluta lanetan ordutegi hau betetzen zeuen: goizeko 8etatik 12xak arte, eta arratsaldeko 1,30etatik 6rak edo 6,30ak arte.

Jose Luis Lete Mugerza (1917-1970) udan, malutak egitxeko sasoia amaitzen zanian, itsasora juaten zan, *Jesus Nazareno* barkuan. Atunetara, zertara bestela.

MAIZTARRAK

Famelixako negoziua zan eurena. Karmele eta Joxeba Maiz Saizarbitoria anaixa-arrebak, Lucio Saizarbitoria Uranga (1868-1945) eta Petra Ikaran Goiri (1878-1969) aitxon-amonekin juaten ziran herriko baserrixetara: Santaelena, Kurpitxa, Agerretxo... Armetxaraiño ere juaten ziran. Dana oiñez. Artazuritzera juaten ziranian bertan bazkaltzen zeuen, batzuetan etxetik eramandako jatekua eta beste batzuetan baserrikuek emandakua. Baserritxarrak artuak batu eta pare bat egunian eukitzen zitxuen sapaixan, gero maluteruei ematen zixuen abisua. Maluta onak apartatu eta zakura. Gero, ohi zan bezela, zaku haundixak bizkarrian hartu eta etxera.

Konde kalian ganbaratxo bat zaken maiztarrek, eta hango bauletan sufriarekin gozatu eta zuritzen zitxuen malutak. Gero, buru-otar txanbillian hartu eta txortak egitxeko tokira eruatzen zitxuen.

Maluta haundixekin txorta haundixak egitxen zitxuen, zimarroitxarako eta lejiatan eukitzeko; maluta txikixaguak, berriz, atunetarako txorta fiñak egitxeko izaten ziran.

Txorta harek kaja haundixetan gordetzen zitxuen, ondo-ondo tapatuta. 300 bat txorta kaja bakoitzian, baiña gero saldu banaka saltzen zeuen, 50, 180 ale...

Maiztarrentzat ez zan lanbide "esklusiboa", ez ziran bizi handik. Evaristo Maiz Azkarraga (1897-1955) bizargiña zan, barberua, eta ahal zoanian egitxen zitxuan maluta lanak. Karmele alabak Egañanetik erten eta gero jarduten zoan txortak egitxen. Jeneralian zapatu-domeketan ibiltzen ziran lan hartan.

Hiru milla txorta inguru egitxen zeuen maiztarrek. Batzuetan zuzenian saltzen zitxuen malutak, baiña askotan Lete famelixako maluteruei saltzen zixuezen. Beste batzuetan, Txomin Arrieta "Bernabe" osabak saltzen zitxuan, Txirritxako sokak-eta saltzera juaten zanian: Santanderren, Asturiasen...

BELAUSTEGITARRAK

Manuel Belaustegi Sustaeta "Katxerua" (1916-2005) zanak goguan zakazenak kontatzeko berezkua zoan bizitxasun eta umore fiñaz azaldu zidan Hotel Haundixan bizi zirala. Bertan malutak gordetzeko gela bat zaken. Neguan ondo tapauta euki bihar izaten zitxuen. Bereziki azpimarratzen zoan hori, *"ondo tapauta eukitzen genduzen malutak, bestela malutia gogortu egitxen zan"*. Haizia hartu ezkero, akabo.

Umetan Eugenio Belaustegi Iriondo (1883-1947) osabarekin juaten zan malutak apartatzera. Goizeko seiretan ohetik jaiki eta Debako Saka baserrixetara juaten ziran, oiñez, zela bestela. Hiru baserri zozen han eta, urtero, bertako arto guztiak zuritzen zitxuen. Lan haura egitxiarren bazkaltzen ematen zixuen. Esku hutsik juan eta zako haundixa bizkarrian hartuta bueltatzen ziran Mutrikura.

Eugenio Belaustegiren andria, Enkarnita Egaña Barrenetxea (1888-1962), Mutrikuko baserrixetara juaten zan malutak zuritzera, Olazko Aritza-Etxeberrira konparazio baterako.

Asturiasen badago Luanco izeneko herrixa. Hara eramaten zeuen maluta asko belaustegitarrek, bertan osaba bat zaken, amonaren lehengusua, eta hari eruaten zixuen berak saltzeko. *"Luancora erematen genduzen malutak batzuetan bueltan etortzen ziran saldu ezta, ba usatzen ez, gogorrak-edo, etortzen ziran bueltan; baiña batzuetan saldu ere bai, eta hantxe hartzen ziran hiru-lau pezta"*.

Apirillian zimarroia aillegatzen zan gure kostalde parera eta aurrerago, ekaiñian, atunetia hasten zan.

Manuelek esanda dakitx Asturiasen hemen baiño ohitxura haundixagua zauala atunetarako. Orduan Euskal Herriko portu gitxitxan ibiltzen ziran atunetan. Eta zimarroitxan ere... gitxi. Ondarrabitarrak eta donostiarrak zimarroitxan baiño ez, getariarrak eta orixoarrak ez batian, ez bestian. Orixoarrei mutrikuarrek erakutsi zixuen atunak harrapatzen. Edozela ere, bistakua da, malutak eta atunak ezin zeikezen banatu, alkarrekin beti.

BASTERRETXEA, LORETO ETA BESTE ASKO

Jenaro Basterretxea Iraola (1869-1930) maluterua eta amu-egintzaillia izan zan, hildakuan Manuela Osa Eizagirre (1867-1946) alargunak jarraitxu zoan negoziuarekin. *"Viuda de Jenaro Basterrechea"* izena irakurri zeiken bere gutunen idazpuru edo menbretian, eta horren aldamenian *"Construcción de toda clase de anzuelos y manojos para bonito"*. Amarekin batera Calixto Basterretxea "Itxas-aurre" (1900-1969) semia ere ibilli zan maluta kontuetan.

Mutrikuko ezizen batzuk pertsona-izenetatik datoz, talde hortakua degu *Loretonekua(k)*. "Loreto" izeneko andra baten seme-alabek amarengandik hartu zeuen ezizena, eta, ondorenian, baitxa illobek ere. María Loreto Lizardi Eizagirre (1887-1948) eta bere senarra, Victoriano Sustaeta Urkidi (1884-1949), malutero ezagunak ziran Mutrikun. Katu kalian bizi ziran beuren zazpi seme-alabekin. Danak ibiltzen ziran maluta-lanetan: baserrixetara juan (Leizarren, Eizarre, Sakoneta...), txortak egin...

Uste baiño zerrenda luziagua osatu degu. Falta dira famelixa batzuk, baiña tira. Amaitzeko hiru abizen gehixago: Barrenetxea, Landa eta Uranga. Eduardo Barrenetxea "Dondai" eta haren andria, Manuela Ituarte, maluta-egintzailliak izan ziran, baitxa Eduardoren beste bi anaixa ere: Jesus eta Agustin. Juan Landa "Atxilli" (1875-1950) ezagunak ere sasoi baten malutero lanetan jardun zoan, Tranpakalian. Eta Jose Luis Uranga "Akello" barberua eta maluterua izan zan.

Josu Larrañaga Arrieta

Eneko Goenaga Sustaeta

MATEMATIKA MANIPULATIBOA:

"jasotako informazioa ulertu, hipotesiak sortu eta erantzunak emateko estrategiak arrazoitzea da gakoa".

Azken urteetan, Euskal irakaskuntzan hainbat hezkuntza lege aldaketa izan ditugu, eta horiekin batera irakasteko metodologia eta helburuak nabarmen aldatu dira. Eneko Goenaga Sustaeta (1997-04-09) matematikaren ikaskuntza-irakaskuntzan murgilduta dabil. Gai honen inguruan solas egiteko aukera izan dugu berarekin.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua atera zuen Enekok, eta jarraian, irakaskuntzako masterra burutu zuen Madrilen matematika arloa oinarri hartuz. Gaur egun aldiz, Innovamat enpresan lan egiten du. Urtebete pasatxo darama bertan matematika arloko formakuntzak eman eta baita jasotzen ere; enpresen administraritza eta pertsonen kudeaketa arloak gustuko dituen arren, matematika arloan zentratzea erabaki baitzuen hezkuntzarekin bateratuz. Izan ere, matematikak eta hezkuntza arloa maite ditu.

Irakaskuntza arloan zabiltza momentuan, zertan?

Matematikak ikasi eta irakasteko modu tradizionaletatik pixka bat aldendu eta bide berriak planteatzen ditugu, ikaslea ikasketa prozesuaren protagonista bihurtuz eta aurkikuntzan zein ulermenean zentratuz bereziki. Orain momentuan, hainbat ikastetxetan gure proiektua azaldu eta egoki erabiltzeko bideak aurkezten ari gara irakasleei; gida-liburuen erabilpen egokia azalduz. Horrez gain, irakasleei laguntzen saiatzen gara ikasleen zailtasunei aurre egiteko orduan, gure helburuetako bat, ikasketa prozesua pertsonalizatzea baita ikasgelako aniztasunari erantzunez. Hau guztia aurrera eramateko, material erakargarria eta erabilgarria aurkezten diegu ikastetxeei eta orain momentuan, berrehun eta berrogehita hamar bat lagun ari dira materialaren sorkuntzan; eta horietatik ehun bat, ikastetxeetan formakuntzak, hitzaldiak, eta arreta zuzena ematen.

Aipatu nahiko nuke, Innovamat enpresa Katalunian sortu zela orain dela bost bat urte, eta matematikaren didaktikan aritzen dela; hau da, matematikak ikasteko modu egokienak zein diren aztertzen ditu eta praktikara eramaten ditu proiektu baten bitartez. Euskal Herri mailan ere jada bi urte daramatzagu.

Matematikak irakasteko modu berri bat aurkezten omen duzue...

Hori da. Matematika tradizionalak azkartasun aldetik oso egokiak direla iruditzen zaizkigu, ordea, azkartasun horrek abstraktuak izatera garamatza. Horrela, eman beharreko pausuak ikasiz soilik iristen gara emaitzetara, askotan egiten ari garena ere ulertu gabe. Hori ikusirik, gure helburua robot batzuk bagina bezala pausuak aplikatzeari utzi eta ulermenean zentratzea da. Aurrekoari lotuta, guraso bilera ezberdinetan partekatutako esperientziek esan digute matematikak gustuko ez izatearen arrazoi nagusietako bat matematikak ez ulertzea dela. Askotan entzuten ditugu: "ez nituen matematikak disfrutatu; ez nituen matematikak ulertzen; ez nuen arlo hori bat ere gustuko". Ez ulertzeak frustrazio txikiak sortzen ditu. Beraz, gaur egungo ikasleek esperientzia berdina izan ez dezaten, ikasketa prozesua ulermenean zentratzen saiatzen gara ikasketa esanguratsua bultzatuz. Bide beretik, gure adituetako batek honakoa galdetu zigun: zer nahiago duzue denbora kontzeptuak ulertzen inbertitu, edo denbora pausu batzuk mekanikoki ikasten pasa? Erantzuna argi dago: Ulertu! Ulertu gabe buruz ikasitakoa luzera ahaztu egiten baita.

Nola definituko zenuke matematikan konpetentea izatea?

Orain arte, hezkuntza zein matematika arloa edukietan zentratu da, eta orain bapatean konpetenteak izan behar dugu; a zelako hitz potoloa! Nire ustez, oreka batera heldu behar gara, konpetentea izateko edukiak barneratzea beharrezkoa baita. Esango nuke, edozein egoeratan, egunerokoan, ditugun ezagutzak aplikatzen jakitea dela konpetentea izatea. Horretarako, planteatzen zaizun arazoa ulertu eta horri aurre egiteko hainbat estrategia erabili edota aplikatzeko gai izan behar zara, eta erabili dituzun bide horiek zergaitik aukeratu dituzun arrazoitzen jakitea ezinbestekoa da: ahoz, idatziz, sinboloen bitartez...

Eguneroko bizitzako arlo gehienak matematikari lotuak omen daude...

Bai, horrela da. Erosketak egitera joaten garenean, lagun edo familiarekin bazkaltzera joaten garenean, egunkaria irakurtzen dugunean... matematikak aurkitzen ditugu, baita haurrak garenean ere. Esate baterako, Haur Hezkuntzan jada diagramak lantzen hasten gara; estadistika eta probabilitateko torreak eraikiz adibidez. Azken finean, nik uste dut sekretua aurrean ditugun kontzeptuekin ez beldurtzea, naturaltasunez hartzea eta material egokiekin edo bakoitzari dagokion mailan azaltzea dela. Horretarako, irakasleentzako gidak sortzen ditugu; hau da, materialak zein baliabideak nola, noiz eta zertarako erabili garbi izan dezaten. Era berean, taldeak nola egin, elkarrizketa bat nola bideratu,... ere planteatzen da. Hori da gure proiektuaren helburua.

Inoiz ez da berandu...

Azken finean, ikasketa etapa bakoitzak bere ezaugarriak ditu, horregatik, maila bakoitzaren ezaugarriak eta heldutasun maila kontuan hartuz onuragarriak diren materialak zehazki aukeratzen ditugu. Material hauek, kontzeptuak eraikitzen hasteko momentuan erabiltzen dira, hala ere, kentzeko momentu bat ere iristen da, bizi osoan materialak poltsikoan ditugula ezin gara ibili eta. Egia da, proiektua Lehen hezkuntzako lehen zikloko aurrekin hasi ginela, eta funtzionamendu egokia ikusita, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-n ari gara txertatzen lan egiteko modu hori. DBHko lehen mailan jada txertatu dugu, datorren urtean bigarren mailan aplikatuko da, eta hurrengo urtetan DBH osoan txertatuko dugu.

Hezkuntza legeak zein ikuspegi dauka matematika konpetentzialen inguruan.

Hain zuzen ere, hezkuntza lege berriaren inguruko eztabaida oraintxe dago pil-pilean; bide hori hartu nahi da eta. Hori horrela, eta guztiz ados nagoen arren, kontraesan txiki batzuk

badaude; batetik, hezkuntza globalizatua bultzatu nahi dute, eta ongi deritzot, baina, bestetik irakasgai bakoitzean konpetentzia zehatz batzuk finkatu dituzte. Adibidez, matematikan lau konpetentzia mantendu dituzte (problemen ebazpena, arrazoitzea eta frogatzea, loturak egitea eta komunikazioa eta adierazpena), eta bosgarren bat sartu dute: alderdi sozio-emozionala. Azken hau, garrantzitsua iruditzen zaidan arren, uste dut ez dela ez eduki ezta konpetentzia bat, zeharka momentuoro dagoen zerbait baizik. Lehentasuna eman nahian, pixkat bultzaka sartu duten sentsazioa daukat.

Haurrak edota ikasleak Matematikan konpetenteak izan daitezen manipulazioa eta elkarrizketaren bidea jorratzen duzue.

Bai, hala da. Materialek, planteatzen diren problemen aurrean abstrakzio maila jaitsi eta ulertzen laguntzen digu, eta gainera, elkarrizketen bitartez beste gaitasun batzuk lantzea ahalbidetzen da. Normalean, manipulaziotik abiatzen gara ezagutzak eraikitzeko, hala ere, eraikitako ezagutzak finkatzeko praktikatzea proposatzen da. Bide honetan, ikasitakoa esanguratsua izateko, estrategia ezberdinak ere erabiltzen ditugu, kontzeptu bakoitzaren atzean zer dagoen jakiteko. Zatiketa bakoitzaren atzean adibidez, banaketa bat dago, eta haurrak garen momentutik egiten dugun zerbait da, goxokiak banatzea esaterako. Ideia hauek guztiak, Lomloek (hezkuntza lege berriak) matematiken didaktikako hainbat erakunderen ikerketetaik atera ditu, esaterako, “Nrich” eta “Nctm” erakunde amerikarretatik. Guk zorionez, azken bost urte hauetan ikerketa hauexek jarraitu ditugu beraz, esan genezake gure bide berean sartu direla, ildo bera planteatzen hasi direla.

Zaletasuna ereiteko eta jakin-mina pizteko ba al dago metodologia edota modu egokirik?

Esango nuke, alderdi garrantzitsuenetako bat ikasleen motibazioa bilatzea dela, horretarako, jarduera dinamiko eta interesgarriak proposatuz. Hala ere, matematika alderdiari gehiago erreparatuz, nire ustez ez dago ehuneko ehunean perfektua den metodologiarik, bakoitzak bere alderdi positiboak eta ez hain onak dituzte. Hala ere, uste dut azken aldian modan jarri diren metodo askok bi akats nagusi egin dituztela; batetik, zenbakietan soilik zentratzen dira, eta matematikak are gehiago dira: geometria, estatistika eta neurketa esaterako; eta bestetik, estrategia berritzaileak mekanizatzen amaitzen dute. Estrategia berri horiek onuragarriak diren arren ulertzean jarri behar da fokua. Ondorioz, proiektuarekin arlo guztiak lantzea, edukiak ulertzeko estrategiak proposatzea eta ikasketa ziklikoa proposatzea da gure helburua; hau da, kontzeptu berdinetik behin eta berriro pasatzea, ikasgelako aniztasunari, batez ere zailtasunak dituztenei laguntzeko asmoz. Horrez gain, lanean taldekatzeak egiterako orduan, talde heterogenoak zein homogenoak erabiltzea egoki ikusten dugu; batez ere elkar elikatzeko eta banakakoan arreta jartzeko.

Nolako materialak aholkatuko zenituzke?

Gaur egun material pila bat daude: abakoak, txanponak, billeteak, kuboak, zenbakiak deskonposatzeko bateko, hamarreko, ehuneko eta milako blokeak…. gainera, mahai jolasek zein baliabide teknologikoek, erabilera egokia eginez gero oso baliogarriak dira. Azken finean, esango nuke materialak baino, horiek noiz eta nola erabili jakitea dela garrantzitsua; eguneroko dinamika ezberdinetan ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Etorkizunari begira zeintzuk dira zure asmoak?

Egia esan oso gustura nabil; talde gaztea, dinamikoa eta oso jatorra baitaukagu. Bestalde, etengabe formatzeko aukera ematen didate hemen. Hala ere, epe luzera begira irakaskuntzan murgiltzea gustatuko litzaidake, azken urte hauetan matematiken didaktikan ikasi dudan guztia ikasgelara eraman eta aplikatzeko.



Baloratzekoak dira hemengo lasaitasuna eta babesa

Ghizlan Yazid 35 urteko tangertarrak 7 urte daramatza Mutrikun. Berarekin hitz egiteko aukera izan dugu familiaz, hemengo bizitzaz, arabiar eskolez, iraganaz eta etorkizunaz.

Noiz eta nola iritsi zinen Mutrikura?

2015 urtean iritsi ginen Mutrikura, baina ez zen Marokotik irtenda gure lehen geldialdia izan. Lehenengo Madrilera joan ginen 2009 urtean senarra Mustafa eta biok, eta bertan jaio zen gure seme helduena, Adam. Ondoren, Errenteriara mugitu ginen. Azkenik, Mutrikura. Itzuli horren ostean Mutrikura iritsi izanaren arrazoia lana izan zen, senarra *Dia* supermerkatuko arrandegian hasi baitzen lanean. Hemen gure bigarren seme Haron jaio zen eta gure familia osatu genuen. Orain senarrak bere negozioa propioa jarri du martxan Getxon eta bertara joaten da egunero Mutrikutik, hemen baitauka bizitokia gure familiak.

Zergatik erabaki zenuten Mutrikun gelditzea?

Hasiera batean lanagatik izan zen. Hala ere, ondoren semeen ikaskideak, lagunak eta orokorrean ingurua ere kontuan hartu genituen. Oso pozik bizi dira hemen. Neuk ere erraztasunez egin ditut lagunak hemen, mutrikuarrak, debarrak, eibartarrak... Marokoar jatorrikoak bai, baina euskaldunak ere bai. Mutrikuko jendea oso jatorra da, onartua sentitu izan naiz beti. Zortea izan dut auzokideekin ere, nire senarrak negozio berria hasi zuenean beldurrez galdetzen ziguten *"Hara joango zarete bizitzera?"*, eta guk esan genien ezetz, lasai egoteko, hemen geratuko ginela.

Nolakoak izan ziren lehen egunak hemen?

Normalak izan ziren, ez ditut bereziki zailak gogoratzen. Esan beharra daukat aldaketa ez zela zuzenekoa izan, ez ginelako Tangerretik zuzenean Mutrikura etorri. Madrilera bizitzera joatea ere ez zen hain aldaketa handia izan, gure hiria, Tanger, oso handia eta turistikoa baita. Kultura ezberdin asko ezagutzen ditugu, gazteleraz ere hitz egiten da bertan... Benetako aldaketa Mutrikura iristean izan genuela esan dezaket, herri txikia delako. Pixkanaka-pixkanaka ohitzen joan ginen. Turistikoa da baita ere udan, hondartza dauka... Badaude antzekotasunak.

Horren harira... Zer antzekotasun eta desberdintasun ikusi dituzu Tangerren eta Mutrikuren artean?

Desberdintasunak, tamaina, kultura, eguraldia... Tangerren beti eguzkia egiten du, euri oso gutxi. Hemengo euriarekin ohitzea pixka bat zaila egin zaigu, egia esan. Beste ezberdintasun bat mugimendua izan da, Tangerren beti nabaritzen delako mugimendua inguruan, jendea handik eta hemendik, turistak, zarata... hemen, aldiz, lasaitasuna nabari da. Egia esan behar badizut nik nahiago dut mugimendu pixka bat... (kar kar kar), baina ohitu naiz jada! Asteburuetan, sarritan, inguruko herri eta hiri handiagoetara joaten gara, pick-nick-ak egiten ditugu, tokiak bisitatu... Hemen daramagun bizimodua Marokon generamanaren antzekoa da, nabari dugun desberdintasun nagusia familiaren falta da, han familiarekin denbora asko igarotzen genuelako. Nire ahizpa bat Valentzian bizi da bere familiarekin eta noizbehinka elkartzen gara; adibidez, pasa den udan Benidormen elkartu ginen guztiok.

Bueltatu zarete Marokora herrialdea utzi zenutenetik?

Bai, noski! Bisitan joaten gara, normalean udan. Umeak ere oso gustura itzultzen dira, hondartza, eguzkia, lehengu-

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



suak, familia... Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu aukera daukagunetan hara joatea, umeek beren sustraiak galdu ez ditzaten.

Momentu honetan lanean zabiltza?

Lanbide-heziketako titulua daukat, baina momentu honetan ez dut lanik egiten. Marokon postu onetan lan egiten nuen, bankuan, turismo delegazioan... baina hemen, ezer ez. Batxilergo tituluaren homologazioa egin behar dut, baina Marokora joan behar naiz horretarako. Covid-19aren kontua gertatu zen... eta orain arte. Nire ametsa berriz nire arloan lan egitea da, benetan gustatuko litzaidake. Euskara ez jakiteak ere zailtasunak dakartza, noski. Nire aitarekin hitz egiten dudan guztietan esaten dit *"Euskara ikasi behar duzu, Ghizlan!"*. Pixka bat ulertzen dut, hitz batzuk, esaldi laburrak... WhatsAppeko mezuak, adibidez. Bilatu dut informazioa euskarako ikastaroei buruz, baina orain arte ez dut lotu nire ordutegira moldatu zitekeenik. Ea laister aukerarik daukadan!

Jakin dugu duela gutxi arabiera irakasten hasi zarela ume talde bati... Nolatan hasi zara horretan?

Bai, gustura nabil gainera! Mutrikuko guraso talde bat batu zen, senegaldarrak eta marokoarrak, beren jatorrizko hizkuntza edo hizkuntzetako bat arabiera dena. Beren seme-alabek arabiera ikastea gustatuko litzaiekeela komentatu zuten eta ideia ona izango litzatekeela eskola batzuk martxan jartzea. Nire formakuntza ezagutzen zuten eta irakasle izatea proposatu zidaten. Nik baiezkoa eman nuen, ideia asko gustatu zitzaidalako. Azalpenak ematea beti gustatu izan zait, eta unibertsitatean ikasten nuenean ere ikaskideei gauzak azaltzea asko gustatzen zitzaidan. Lehen aldia da irakasle lanetan nabilena eta oso gustura nabil. Nire bi semeak, Adam eta Haron ere ikasleak dira gainera!

Nola antolatzen zarete?

Bi talde ditut, ostiral arratsaldetan bat, eta larunbat goizetan bestea. Adinaren arabera banatu ditugu taldeak. Arabiera klasikoa irakasten dut, nahiz eta familia askok arabieraren dialektoak erabili. Guk, adibidez, etxean arabieraren dialekto marokiarrez hitz egiten dugu, klasikotik ezberdina dena. Euskararekin gertatzen den moduan!

Ni oso pozik nago, eta ikasleak oraindik eta gehiago. Ikasteko gogo handia daukate. Gurasook ere pozik gaude, hemen ez dagoelako arabiera ikasteko klaserik eta garrantzitsua iruditzen zaigulako haur eta gazteek beren jatorria ez galtzea.

Non ikusten duzu zure eta zure familiaren etorkizuna?

Hemen, nik uste dut gure etorkizuna hemen dagoela. Gure semeak pozik bizi dira hemen eta nire semeak pozik badaude, neu ere bai. Argi daukate ez dutela bizitokiz aldatu nahi, Mutriku oso gustuko dute eta hemen geratu nahi dute beren lagunekin, betiko. Gainera, Mutrikun bizitzeak lasaitasun edo segurtasun sentsazioa ematen dit; esaterako, nire seme zaharrena bakarrik irten daiteke kalera lagunekin eta lasai gelditu naiz, gainera lagunen guraso guztiek ezagutzen dute. Hori ezin izango litzateke egin beste toki batean, adibidez, Bilbon, kezkatuta egongo bainintzateke. Lasaitasun hori asko baloratzen dut.

Bisitatzera bueltatuko gara Tangerrera, baina bizitzera ez. Egunen batean Haronek eta Adamek joan nahiko balute joango ginateke, baina bestela ez. Beren zoriontasuna da garrantzitsuena.



MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ZORIONAGURRAKZORION

YARE
Zorionak gure etxeko printzesari, zure lehenengo urtebetetzea delako. Muxu potolo bat etxekoen partez.

PEIO
Zorionak osaba maiatzaren 27an urteak beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxekoen partez.

IZASKUN eta LEYRE
Zorionak bikote zuen urtebetetzia apirilean izan delako. Ondo pasa bazkari eder batekinn familia artean.

SUA
Zoriona! 7 urte bete dituen etxeko printzesari. Muxu potoloak, Ane, Irati eta Noraren partez.

GORKA
Zorionak! 8 urte betetzen dituzulako. Muxu handi bat etxeko danon partez. Ondo pasa!

ENARA
Zorionak etxeko txikiari apirilak 21ean 7 urte bete dituzulako, ondo pasa familixan partez.

LAGUNA
Zorionak lagun, lagun zarelako!

MIKEL
Zorionak gure bihurritxoari! Muxu potolo asko familia guztiaren partez!

ZORIONTZEKO
ARGAZKI ZAHARRAK
ERAKUSTEKO

kalaputxi2001@gmail.com

whatsapp 635748393

Argazki Zaharrak

▲
1964ko irailaren 20an,
Arantzazuko martxa reguladan
Goian: Begoña Martija, Tere Maneiro,
Begoña Lezertua eta Mila Arizmendi.
Behean: Clarita Lezertua, Tere Garnacho
eta Mari Luz Gambra.

◀ **1957 urtean**
Rosita Mendaña Moreira eta
Ana Maria Lezertua.

FARMAZIA GUARDIAK 2022

2022	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Apirila	4	4	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	②	2	3	3	3	3	4	4	
Maiatza	4	2	2	2	2	1	①	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	②	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2

② ① Larunbat goizak (09:30 -13:00)

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00

1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	① Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	② Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26

GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00

Mendinueta Berastegui	Eibar	Urkizu pasealekua 6	943 82 01 06

LIBURU ASTEA

apirilak 28, martitzena

Letra zaparrada ipuin kontaketa

apirilak 29, eguaztena

Liburutegiko zozketa liburutegian

maiatzak 14, zapatua

Triatloia

maiatzak 21, zapatua

Sokatira, 680 kg. Euskal Herriko txapelketa

maiatzak 29, domeka

Traineruen estropada

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
maiatzeko aldizkarian
argitaratzeko
maiatzaren 13rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA 2022

apirilak 22
ekainak 24
abuztuak 12
urriak 21
abenduak 9

17:00etatik 20:30ak arte
anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK

MAIATZAK 8
Otzaurte - ARATZ (1.445 m.) - Otzaurte

EKAINAK 12
Gorostapolo - HAUTZA (1.304 m.) - Izpegi gaina

UZTAILAK 8, 9 ETA 10
PANTICOSA

IRAILAK 11
Iruña - EZKABA (895 m.) - Olabe (GR225)

URRIAK 16
Andoin - BAIO (1.197 m.) - Opakua gaina

AZAROAK 6
Legutio - JARINDO (895 m.) - Legutio

ABENDUAK 4
Markinako Bigarren Guda Lerroa

Burumendi Mendi Elkartea

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

TXIMAK
ILEAPAINDEGIA

ZERBITZU BIKAINA
ARRETA PERTSONALIZATUA
KALITATEZKO PRODUKTUAK
DENONTZAKO ILEAPAINDEGIA

zure ileapaindegia!

Eva Ibarrola Urreisti
Jose Mª Altzibar 18 · 20830 MUTRIKU
ileapaindegiatximak@gmail.com
Tlf. 943 60 30 03

ESKERRIK ASKO
ZUEN KONFIDANTZARENGAITIK!